

A03 - Lanbide-orientazioko jardunaldia

Dinamika presentzialak, DBHko ikasleei prestakuntza eta lanbidea hautatzen laguntzeko. Askotariko STEM lanbideak daudela ikusiko dute, arlo horretako profesionalekin harreman zuzena izanez.

Ikasurtea

4. DBH

Data

**2023ko irailaren 27,
astelehena**

Lantzen diren irakasgaiak

Lanbide orientazioa

Jarduera mota

Jardunaldi presentziala BECen

Hizkuntza

Euskara/Gaztelera

Irismen geografikoa

Araba

Bizkaia

Gipuzkoa

Jarduera ematen duen erakundea

**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Saila**

**Berrikuntzaren Euskal Agentzia,
Innobasque**

Curriculumaren edukiak

Lanbide-orientazioa lantzea, STEM lanbideen irudi errealista eskainiz.

Ikasleei laguntzea lanbide-profil jakin batek eskain diezaiekeenaren irudi osoago bat izaten.

Zer ikasten dute ikasleek?

Harreman zuzena STEAM arloko profesionalekin. Beren ibilbide akademiko eta profesionala kontatuko dute, eta egiten duten lana egiteko motibazio eta interes pertsonalak azaldu. Ikasleek, berriz, galderak egingo dituzte, eta beren etorkizun profesionalari buruzko kezak azaldu.

Baliabideak

Parte hartuko duten ikastetxeetako irakasleek prestakuntza jasoko dute, gai izan daitezen ikasleei azaltzeko nola egituratuta helarazi behar dizkieten beren kezak STEM arloko profesionalari, hitzordu azkarren dinamikan. Aurkezpen laburrei dagokienez, parte hartuko duten profesionalen zerrenda emango zaie ikastetxeei, aldeztetik bilaketak egin eta profesionalen profilak ikertu ahal izan ditzaten.

Garapena

Jardunaldi nagusi horretan, 2 dinamika paralelo landuko dira (ordubeteko bakoitza).

1. Hitzordu azkarrak STEM profesionalekin. Topaketa azkarrak dira, 15 minutuko bloketan egituratuak. 15 minutuko bloke bakoitzean, 5 ikasleko talde bat STEM arloko profesional batekin bilduko da.

2. STEAM arloko profesionalen aurkezpen laburrak. STEM arloko 10 profesionalen 5 minutuko aurkezpenak dira. Profesional bakoitzak 5 minutu ditu bere ibilbide akademiko eta profesionala kontatzeko modu erraz eta atseginean, eta egiten duen lana egiteko motibazio eta interes pertsonalak azaltzeko. Aurkezpenak 400 ikasle-entzako lekua duen auditorium batean egingo dira, eta profesionalak banan-banan igoko dira, ekitaldiaren gidariak aurkeztu ahal. Gainera, lurraldean barrena jardunaldi txikiak egingo dira, STEAM Sareri lotutako eragile sozioekonomikoei sustatuta.